

AURREKONTU SOZIALAK BESTE EREDU BATERAKO

NO a la reducción del gasto público

AURREKONTU "ESTUAK", LANGILEOK ARE GEHIAGO ESTUTZEKO

Krisiaren aitzakiaz, Iruña eta Gasteizeko gobernuek aurrekontu "estuak" prestatu dituzte eta, euren esanetan, "arduraz jokaturik" zor publiko eta defizitari aurre egiteko zerbitzu publikoak eta gastu soziala murrizketez josi dituzte. Aurrekontu sozial justuak burutzeko diru nahikorik ez dagoela esaten dute, baina horren zergatia aipatzea nahita ahazten dute.

Zerga politika osoa enpresariaren eta kapitalaren mesedetan jarraitzen dute egiten. Honela, errenta altuenei eta enpresariei zergak jaitsi eta barkatzen dizkieten bitartean, etekin fiskalak deslokalizazioetarako barne, langileon zergetan oinarritzen dituzte kontu publikoak, gerora, gainera, herritarren kalterako aurrekontuak burutzeko.

Kapital errentek lan errenten eskala berean tributatuko balute, ondare eta ondasun handien zergak berriro ezarriko balira, sozietateen zergaren presioa berreskuratuko balitz, benetako iruzur fiskalaren kontra egingo balitz... hau da, kapitalak ordaindu beharreko zerga guztiak ordainduko balitu eta instituzioek ez baliete barkatuko, soberan egongo litzateke dirua egin behar diren gastuak egiteko.

Hala ere, langileon diruaz kapitalaren mesedekoak diren aurrekontuak egitea erabakita daukate. Diru nahikorik ez badago, diru nahikorik ez egoteko erabaki politikoa hartu dutelako baino ez da.

2011ko aurrekontuetan murrizketa kaltegarri asko dago. Adibidez, osasun, hezkuntza edo etxebizitza politiketarako 2010an baino diru gutxiago (zehazki 182,168 eta 18 milioi euro) bideratuko dute Hego Euskal Herriko Gobernuek. Aurrekontuek arlo guztietan izandako murrizketa-neurriak onartzeaz gain, nahita, gaurko babes sistemaren bideragarritasunaren inguruko zalantzak azalarazten dituzte.

Honelako aurrekontuek, gainera, krisialdia luzatu baino ez dute egingo. Alde batetik, jadanik ikusten denez, ekonomiaren susperraldia moteldu, langabezia larriagotu, zerbitzu publikoen kalitatea txikitu, eta krisialdiaren ondorioak pairatzen dituzten lagunak babes sozial nahikorik gabe utziko dituzte.

Bestetik, sektore publikoa bultzatzea (eta bereziki gastu soziala) ezinbestekoa da egoera zail honetan aukera berdintasunaren alde egiteko eta modu bakarra da benetan krisialditik irteteko eta enplegu duinaren sorrera sustatzeko. Krisialditik ez da irteten krisialdira eraman gaituzten politiketan sakonduz, aurrekontu hauekin egiten ari diren moduan.

Gehiengo sindikalak horrelaxe adierazi eta aldarrikatu genuen 2009an burutu genuen greba orokorrean, dekalogoan aldarrikatu genituen hamar urratsetan eta aurtengo ekainaren 29ko greba orokorrean, baina Sanz eta Lópezen gobernuek entzungor jarraitzea erabaki dute.

Behar beharrezkoa dugu langileon eta herri sektoreon interesekoa den alternatiba. Beste eredu ekonomiko eta sozial bat eraiki behar da ekonomia herritarren mesedetan kokatuko duena eta ez kapitalaren mesedetan. Horixe da modu bakarra herritarrok behar ditugun aurrekontu sozialak izateko, horixe delako modu bakarra aberastasuna behar den bezala banatzeko.

Langileok aurrekontuen diseinuan parte hartu behar dugu, ez daitezen izan diru publikoa esku pribatuetara bideratzeko tresna hutsa, gaurko egunean diren moduan. Parte hartzeko eta erabakitzeko eskubidea ez ezik, premia ere badaukagu, geure interesak defendatu nahi baditugu, gaur egungo instituzioak ez baitaude prest horretarako. Parte hartzeko tresnak eta gure erabakiak babestuko dituzten bermeak ezinbestekoak ditugu horretarako.

Euskal Herriari eragiten dioten aurrekontuak Euskal Herrian erabaki nahi ditugu, eta ez Madrilek ezartzen dizkigun muga eta joko arauen arabera. Gure aurrekontuak eta gure zerga politikak erabakitzeko burujabetza behar dugu. Horrela soilik lor dezakegu langileon interesekoa izango den bestelako eredu ekonomikoa, aurrekontu sozialak benetan kontuan izango duena, herritarren mesederako eta herritarren eskubideak errespetatuko dituen.

ELA-LAB-STEE/EILAS-EHNE-HIRU

AURREKONTU SOZIALAK

BESTE EREDU BATERAKO

NO a la reducción del gasto público

PRESUPUESTOS "AUSTEROS" PARA RECORTAR AÚN MÁS NUESTROS DERECHOS

Con la excusa de la crisis, tanto el gobierno de Iruña como el de Gasteiz han elaborado unos "austeros" presupuestos. Han recortado los servicios públicos y el gasto social para, según dicen, "actuar con responsabilidad" y hacer frente a la deuda pública y al déficit. Argumentan que no hay dinero suficiente para hacer unos presupuestos sociales y justos, pero olvidan premeditadamente el porqué de ello.

Toda la política fiscal está pensada para resultar favorable al empresariado y al capital. Como bajan y perdonan impuestos a las rentas más altas y a las empresas, incluidas las bonificaciones fiscales para las deslocalizaciones, las y los trabajadores somos quienes sostenemos casi por completo las cuentas públicas; y a cambio recibimos unos presupuestos que recortan nuestros derechos.

Si las rentas del capital tributasen en la misma escala que las del trabajo, si se restituyesen impuestos como el del patrimonio y de las grandes fortunas, si se recuperase la presión sobre el impuesto de sociedades, si realmente se persiguiese el fraude fiscal..., es decir, si el capital pagase todos los impuestos que debe y no fuesen perdonados por las instituciones, sí que habría dinero de sobra para gastar en lo que realmente es necesario.

Sin embargo, deciden realizar unos presupuestos para favorecer al capital con el dinero de las y los trabajadores. Si no hay suficiente dinero, es porque han tomado la decisión política de que no lo haya.

En los presupuestos de los gobiernos de Hego Euskal Herria para el 2011 hay multitud de recortes sumamente perjudiciales. Así, se destina mucho menos dinero a sanidad, educación y a políticas de vivienda que en el 2010, concretamente 182, 168 y 18 millones de euros respectivamente. Además de aceptar todos estos recortes plantean dudas sobre la viabilidad del actual sistema de protección.

Además, estos presupuestos no harán más que alargar la situación de crisis. Por una parte, como ya estamos viendo, aminorarán la recuperación económica, agravarán el desempleo, mermarán la calidad de los servicios públicos y dejarán sin la protección social necesaria a las personas que están sufriendo las consecuencias de la crisis.

Por otra, impulsar el sector público (y sobre todo el gasto social), propiciando en una situación tan difícil la igualdad de oportunidades, es la única manera de salir de la crisis y promover la creación de empleo de calidad. No se sale de una crisis ahondando en las mismas políticas que nos han llevado a ella, tal y como pretenden con estos presupuestos.

La mayoría sindical ya lo reivindicamos con las diez medidas urgentes recogidas en nuestro decálogo y en las huelgas generales del 2009 y del 29 de junio de este año, pero los gobiernos de Sanz y López han decidido seguir haciendo oídos sordos.

Necesitamos una alternativa en favor de los intereses de la clase trabajadora y los sectores populares. Hay que construir otro modelo económico y social que sitúe la economía en favor de las personas y no del capital. Ése es el único modo de elaborar unos presupuestos sociales, porque ése es el único modo de que la riqueza se distribuya justamente.

La clase trabajadora tenemos que tomar parte en el diseño de los presupuestos, para que no se conviertan en un mero instrumento para desviar dinero público a manos privadas, como pasa hoy en día. Tomar parte y decidir en estas materias no es solamente nuestro derecho, también es imprescindible si queremos defender nuestros intereses, ya que las instituciones vigentes no tienen ninguna intención de hacerlo. Precisamos instrumentos de participación y garantías de que nuestras decisiones sean respetadas.

Es en Euskal Herria donde debemos decidir los presupuestos que afectan a Euskal Herria, y no según las reglas de juego y los límites que nos imponen desde Madrid. Necesitamos soberanía para decidir nuestros presupuestos y nuestra política fiscal, para que construyamos aquí y desde aquí otro modelo económico en favor de la clase trabajadora, con unos presupuestos realmente sociales, que reviertan en la ciudadanía y que respeten sus derechos.

ELA-LAB-STEE/EILAS-EHNE-HIRU